GERNIKAKO AZOKA

# Nobedade gisa salgai jarri zen baba berria aipatu behar da

MARIBI CAMPILLO / **GERNIKA**

Baba izan genuen atzoko nobedadea eta kiloa 250 pezetan saldu zen. Datorren astean salgai kipula berriak jartzea espero da.

**LANDAREAK**

Kipula gorriak, 350-400 pezeta zientoa; kipula horiak, 300-350; tipulinak, 250; porruak, 300; azak, 400; letxugak, 400; azelgak, 400; piperrak, 1.500; tomateak, 1.500; tomatea takoan, 50-105; piperra takoan, 30.

**BARAZKIAK**

Piper sikuak, 1.500-3.000 pezeta; Tolosako baberrunak, 800; baberrun gorriak, 700-750; baberrun beltzak, 600; baberrun zuriak, 550; letxugak, 40-50; kalabazak, 75; azenarioak, 50; erremolatxak, 50; kipula gorriak, 300-500 dozena; porruak, 150-200; patatak, 50-55; apio sortak, 90; azelgak, 50; espinakak, 400; perrexil sortak, 50.

**HEGAZTIAK**

Oilanda gorriak, 800 pezeta; oilasko txikiak, 190; txitak, 40.

**FRUTAK**

Kiwiak, 70-250 pezeta; erreineta sagarrak, 300; golden sagarrak, 200; intxaurrak, 500; urrak, 400.

**ZUHAITZAK**

Pinuak, 10 pezeta; kiwiak, 8.000.

# HILDAKOAK

## BIZKAIA

### BILBO
Jose Antonio Perez Bilbao, 48 urte.
Catalina Atxalandabaso Zalbidea, 86 urte.
Teodoro Garzon Cantera, 75 urte.
Bonifacio Martinez Tobalina, 41 urte.
Miguel Gonzalez Gil, 68 urte.
Mauro Zorrilla Laka, 91 urte.
Antonia Casado Casado, 78 urte.
Juana Gonzalez Gil.
Luis Zurimendi Salabarria, 65 urte.

### ALGORTA
Soledad Zugazabeitia Intxaurtieta, 88 urte.

### BARAKALDO
Maria Isabel Garcia Martinez, 52 urte.

### BASAURI
Justa Martin Hernandez, 72 urte.

### IURRETA
David de Cos Gomez, 83 urte.

### KARRANTZA
Isabel Ortiz Zorrilla, 79 urte.

### LEKEITIO
Sotera Angela Martinez Castaños, 80 urte.
Faustina Zabala Abaroa, 81 urte.

### MUNGIA
Francisco Gaminde Lopategi, 66 urte.

### PLENTZIA
Casilda Alonso Agirre, 92 urte.

### SONDIKA
Josefa Llona Aldekoa, 92 urte.

### URDULIZ
Ramon Barruetabeña Mardaras, 59 urte.

### URTUELLA
Valentina de Pablos Frutos, 79 urte.

## GIPUZKOA

### DONOSTIA
Luis Saenz Gonzalez, 81 urte.
Constantina Ostolaza Solaberrieta, 87 urte.
Martina Bermejo del Caz, 81 urte.
Teresa Perez San Martin, 88 urte.
Carmen Areitio Urtena, 85 urte.

### ANDOAIN
Francisco Gonzalez Gonzalez, 32 urte.

### ANTZUOLA
Basilio Larrañaga Txintxurreta, 66 urte.

### BEIZAMA
Jose Maria Goenaga Iraola, 77 urte.

### BILLABONA
Felix Martinez Merino, 76 urte.

### EIBAR
Teresa Fernandez Dominguez, 65 urte.

### ERRENTERIA
Juan Maria Arostegi Oiarzabal, 44 urte.

### IRUN
Francisco Arrastua San Sebastian, 87 urte.

### ORDIZIA
Silveria Arana Matxain, 88 urte.

## ARABA

### GASTEIZ
Primitiva de Andres Martinez de Arenaza, 97 urte.
Maria Begoña Agirre Fuertes, 44 urte.
Jose Manuel Flores Gomez, 20 urte.

## NAFARROA

### IRUÑEA
Miguel Bidaurre Etxauri, 78 urte.
Paulino Azanza Ansa, 70 urte.
Ernesto Etxeberria Jimenez, 56 urte.

### AZKOIEN
Valentina Irigarai Falcon.

### BAKEDANO
Obdulia San Martin Fernandez, 86 urte.

### BERRIOZAR
Ana Purificacion Valverde Burgos, 90 urte.

### BURLATA
Severiano Martinez Erro, 79 urte.
Maximina Carte Garcia, 86 urte.

### ESPARTZA GALAR
Anastasio Aizkorbe Garaioa, 66 urte.

### MENDIGORRIA
Alfonso Usoz Aramendia, 78 urte.

## LAPURDI

### BAIONA
Alfred Darizkuren, 90 urte.
Louis Martinez, 69 urte.
Madeleine Stehelin-Berge, 103 urte.

### AHURTI
Pascaline Etxebers-Feynerol, 76 urte.

### ANGELU
Marie Laborde-Jaurena, 90 urte.
Petra San Jose, 88 urte.
Maria Jeanne Arroupe-Foix, 76 urte.

### DONIBANE LOHIZUNE
Pedro Ripalda, 87 urte.

### GETARIA
Jean Baptiste Laffitte, 94 urte.

### HENDAIA
Maritxu Lapeyre-Laurent, 73 urte.

### MIARRITZE
Denis Calmon, 35 urte.
Simone Bordeu-Lopez, 77 urte.
Andre Bontemps.
Armand Dufourg, 98 urte.

### ZIBURU
Pierre Pery, 69 urte.

## NAFARROA BEHEREA

### BANKA
Bernard Oçafrain.

**ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 46 90 22 4etatik 7etara: (943) 37 15 45**

Hirigintza

# San Frantziskoko aparkalekuaren kontrako errekurtsoa aurkeztu dute

## Kontzentrazioa gaur Plazan Udalaren irregulartasunak salatzeko

**Alde Zaharreko Auzolagunen Elkarteak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu du Iruñeko Entzutegi Administratiboan, Alfredo Jaimek alkateak San Frantzisko Plazako aparkalekuaren lanak egiteko eman zuen baimenaren kontra.**

I. I. / **IRUÑEA**

Alkateak otsailaren 10ean hartutako erabakiaren aurka aurkeztu du gora jotzeko errekurtsoa Alde Zaharreko Auzolagunen Elkarteak. Erabaki honen bidez Luis Zaranzo Amo, Aparkantes Elkarteko ordezkariari eman zion Alfredo Jaime alkateak plazan kokatuko den aparkaleku polemikoaren lanen adjudikazioa. Udal bilkura honetan obrak egiteko baimena ere eman zitzaion enpresariari. Plenoan hartutako erabakiak ezeztatu egin nahi dituzte Alde Zaharreko auzolagunek.

Hiritar hauen Elkarteak salatu duenez, iazko azaroaren 25eko akordio plenarioan adjudikazio, baimena eta lizitazioa ekintza administratibo bakar batean onartu zituzten. «Ez zituzten ez epeak ez azalpen publikoa errespetatu. Bi legeetan oinarritu ziren hori egiteko eta beste guztiak ez zituzten kontutan hartu» esan zuen auzolagunen ordezkariak egoitza berrian emaniko prentsaurrean.

«Komertzio edo taberna bat bailitzan tratatu dute Aparkantes Elkartea, eta zenbait prozedura ez dituzte bete. Eta dena Maisonave Hotelarekin bat egin dutelako. Hotelaren interesak bultzaturik ari dira aparkalekua denon gainetik eraikitzen, indarrean dagoen legeak agintzen dituzten neurriak alde batera utzi bait dituzte. Auzolagunek esan dutenez, hamabost hilabete falta zirenean lehiaketa ebazteko Aparkantes Elkartearen proiektua azalpen publikora jarri omen zuten. «Lanak aspaldi eman zituztela esan nahi du honek».

Prozeduraren irregulartasunak eta Udalak erakutsi duen ilunkeria salatzeko asmotan gaur arratsaldeko zortziretan kontzentrazio batetarako deia egin du Alde Zaharreko Auzolagunen Elkarteak.




**BILBOTARRAK** trafiko ixtea eta desbideratzearen aurka.Bilboko San Ignazio, Ibarrekolanda eta Elorrieta auzoetako hiritarrak, metroko lanak direla eta, Lehendakari Agirre Etorbidea ixtearen aurka mobilizatu ziren atzo, baita kale honetako trafikoa beste zenbait kaletan barrena desbideratzearen kontra ere, X. SIMALen argazkian ikus daitekeen bezalaxe. «Desbideraketen ondorioz trafikoaz inguraturik gelditurik gara, hain zuzen ere, metro karratuko biztanle gehien dagoen kale eta ikastetxe guztiak dauden tokitik igaroko da, eta hori erabat onartezina da», kexu ziren atzo auzo horietako biztanleak.

TERESA MARTIJA

(Bilboko A.E.K.ko irakaslea den Arantza Uriberen ama)

*Anai-arrebok ez etsi*
*lehengo sustraiari eutsi*
*arima kendu nahi digutenei*
*hortzak erakutsi.*
*Herri libre bat iritsi*
*nahi badugu bihar-etzi,*
*arma benetan ziurrena den*
*euskarari eutsi.*

BILBOKO A.E.K.

# ESKELAK

ARRATSALDEKO 7AK ARTE HARTZEN DIRA